

Benjaminen bidaiak

Ospetsu izatearen kontua ere batzutan oso bixia gertatzen da. Hil honen lehen eguneko **El Diario Vasco** egunkarian arazoiz zion adiskide Luis Pedro Peña Santiagok, aste hauetan telebistan ematen ari diren Marco Polo-rena aipatuz, Tuterako Benjamin (Benjamin de Tudela) gogoratiaz, Marco Polo zein ezaguna den gure artean eta, alderantziz, zein ezaguna Tuterako Benjamin, italiarrak baino mende lezdi lehenago Europa, Asia eta Afrika zehar bidaiak luze bezain aipagarri bat egin zuena.

Nafarroako Tudelan sortu bazen ere, judu familiakoa zen Benjamin, eta 1160 eta 1173. bitartean bidaiak handi bat egin zuen garai hauetan ezagutzen zen mundu guzira zehar. Bidaiak ikusia eta bizitua liburua batean bildu zuen (hebraieraz **Séfer-Masacot** deritzana), hebraieraz idatzi bai zuen eta eskuizkribuz zabaldu zen bere garaietan, 1543an inprimatu zen Kostantinopolan. Lehen argitalpen hortan huts asko daude ondorengoek berri jaso zituztenak eta Adler-ek British Museum-gu eskuizkribuz eta Asher-en edizio osatuan oinarriturik 1907an Londresen argitaratu zuena jotzen da hobereentzat. Hamazazpigarren mendetik zenbat hizkuntzataratu itzulita izan zen eta gaztelazkoa, lehenik, I. González Lfubera-rena da, 1918an argitaratua. Igaz ordea, Biblioteca Nueva Sefarad-en J.R. Magdalena Nom de Dieu-k argitaratu zuen itzulpen berria, edizio kritikoa gisa, sarrera berezi bat eta oharrez.

Bidaiak liburua hori, egunkari gisa idatzia da, era hontara hasia: "Nere hiririk irten nintzen Zaragozarunt. Ebro-ko bidean behera abiatuz Tortosa-ra arte eta handik bi egunen buruan Tarragona zaharerrara...". Gero, Barcelona, Marsella, Pisa, Erroma. Toki bakoitzean juduen komunitateak bisitatzen zituen eta seguruak horiek ematen zien ostatu eta janaria. Artesau kontuetan gizon aitua zen, naiz

bitxiak ezagutzen, gema, koral, perla eta gainerakoetan, baina baita ere ehunen kalitatez eta horiendako tinturaz, vidrio kontuan eta perfumetan, eta antza denez, merkataritza harremanak ere erabili zituen. Horrez gainera, **Torá** eta **Halajá** (Biblia eta Talmud) izkribu zaharretan ikasia zen. Horregatik askok uste izan dute **rabino** zela ere.

Erromatik itsasertzera jarraituz jo zuen Salermora, handik Tarento eta Otrantotik Grezia aldera igarotzeko. Toki bakoitzean ezter berezirik bada, erarik sinpleenean agertuko digu Benjaminek, Turkia eta Siriako itsas-hegalatiko zenbait isla bisitatu jo zuen Korikoera eta handik Antiokia zehar Lur-Santuetara, Beirut, Sidon, Tiro, Akre, Jaifatik Jerusalemera. "Hiru hesiz fortifikatutako hiri tipi bat da Jerusalem—esango digu—. Jenderik asko da bertan; ismaeliteri jakobitak deritzen zaie, armeniar, grekar, georgiar eta frankoak, eta hizkuntz orotakoak daude. Han dago tintoreria etxea ere, juduak urtero erregeri alogatzen diotena. Jerusalemen juduak ez bestek luntzarik egin ez dezan. Berreunen bat judu bizi dira David-en Dorrepean, hiriarren ertz batean". David-en Dorrea. Ospitala eta Salomon-en Eliza non zeuden xeheki ematen du. Baita ere, langile batzuk David-en hilobia nola aurkitu zituen ere kontatzen du, berari han esan zioten bezala. Gaur ordea, inguru haretako sinagoga batean agertzen da Tuterako Benjaminek arkitutaz, eta mendebaldeko harresiaren ondok juduak deboziokorik handiena diote.

Jerusalendik Damaskora joan zen eta Siriako basamortuetatik zehar Jama, Alepo eta Rakka-ik Tigris ibaira, handik beherantz Bagdad-era iristeko. Hor kokatu zen bere inguruetako bidaiak tipikoan egiteko. Judu komunitatearen babesean merkataritza eta kulturak hortarako aukera eman zionez. Arabia

eta Nisabur aldeko juduetaz eta Kix eta Zeilan ugarteetan edo Kilon eta Txina aldeko berriak—Grifo deriztan arranoaren kondaira eta itsaso izoizua eta abar— beste batzuegandik jasotakoak omen dira.

Ondoren datozen orrialdeetan egiazko kontaeren itxura gehiago nabari da, Egiptoko erresumetan sartzen delarik: El Kairo eta Fustat, Alejandria, Sinai mendia eta Damietta. Hemen hartu zuen itsasontzia Sizilia aldera. Erromatik Parisera joateko, eta hemen bat batean etetean da bere ibilaldien kontaera.

Bidaiatzko lehen liburua dugu Tudelako Benjaminen, literatura mota hau gustatzen zaiola edonorentzat atseginaria eta, era berean, XII. mendeko hiri, merkataritza eta kulturaren lekuko. Ezta liburua luzea. Bestalde, erarik arruntenean, gauzak oso ximple agertuz idatzia da, eta guzi horrek egiten du irakurkari erraza. Nafarroako erregetaren garaian nafar-judu baten ibilirik eta bere ikuspegiak ditugu. Edozelan ere, liburua ezagurriaren benetara. Tudelan bertan kale bati Benjaminen izena eman bazitzaion ere, eta hiriko plazan izkribu bat irarria izan, gure artean baino ezagunagoa da Jerusalemen bertan, era berean kale batean ezagurri berezi bat duenez.

Euskal telebistak ez ote du modurik holako bat euskaraz egiteko Benjaminen liburuan oinarriturik?

Juan SAN MARTIN

Días pasados, con una mención a la serie televisiva sobre MARCO Polo. Luis Pedro Peña Santiago nos recordaba a Benjamin de Tudela en un artículo que comienza lamentando el olvido en que se le tiene al tudelano que siglo y medio antes que Marco Polo recorrió gran parte de las tierras de Europa, Asia y Africa, y escribió un libro descriptivo de sus viajes (en

hebreo; **Séfer-Masacot**).

Benjamin era nacido en Tudela en el año 1160, y su viaje lo realizó entre los años 1160 y 1173. De su manuscrito existen varias copias y la primera impresión apareció en Constantinopla el año de 1543. Se tradujo a diversas lenguas. Siendo la más difundida la edición crítica de Asher, y la más completa la de Adler, basada en la edición cotejada con los manuscritos existentes en el British Museum. I. González Llubera tradujo al castellano en 1918 y el pasado año apareció edición con versión, introducción y notas de J.R. Magdalena Nom de Dieu, por la Biblioteca Nueva Sefarad de Barcelona.

De Tudela partió para Tortosa y de allí siguió el curso de la costa mediterránea, pasando por Roma, Grecia, Turquía, Chipre hasta Tierra Santa. En Jerusalén se le atribuye el descubrimiento de la tumba de David. Damasco pasa a Bagdad donde pasó una mayor parte de tiempo de las cruzadas, donde se dedicaría a recorrer las tierras conquistadas, probablemente dedicándose a enseñar a la vida civilizada.

Se le tenía por erudito, por sus conocimientos de la Biblia y el Talmud, pero hoy se sabe que, cosa, pues era igualmente entusiasta del comercio, en la artesanía, historia, geografía, etc. Su libro de viajes está escrito con precisión y su lectura, además de ser amena, es un testimonio del mundo del siglo XIII. La ciudad describe aspectos importantes de su historia, sus monumentos, gobernantes, etc. Hay una parte asiática donde se relatan leyendas fantásticas, pero el relato es muy vivo de realismo cuando se centra en las ciudades egipcias, De Damietta y Sicilia pasa al continente europeo al emprender su viaje por Roma y París.

Benjamin de Tudela y su libro de viajes son un personaje y una obra dignos de ser conocidos.

Gorbeia parke naturala bihurtu nahian

Beharbada baten batek gogoratuko du nola aurreko artikuluko batetan Gorbeia buruzko aipamenik eginen nuen. Mendi horren gaineko albiste bat eman nahi nuen eta, gogoak eraginda, lumak beste hildo batetik jo zuen, zeharo bestelako deskribapena sortzen zitzaidalarik. Galdutako harira itzuli nahi dut gaurkoan. Hitzak hitz.

Eta albisteak hauxe zen: Gorbeia parke naturala bilakatu nahi dutela. Araba eta Bizkaia herrialdeentzat. Lehen egitarauak enkargatuta ei dauzka Eusko Jaur-laritzak. Botanika, geologia, ur-baliabideak, artzantza, bertako bizilekuak, klima... izango dira aztertuak, Gorbeia behar den bezala irauterazi ahal izateko. Eta erabaki hori txalagarria dela uste dut, mundu zibilizatuaren sartzen ari gara adierazten baitu.

Espreski sorturiko Erakunde batek zuzenduko ditu parkearen gorabeherak, lehendabiziko lana beharrezko estatutuak gertutzea delarik. Nork bere parke balitz bezala zainduko balu, Gorbeia erakunde eta estatutu horien premia ez genukeela izango esan dezake edozeinek. Eta ez zaio arazoirik falta. Baina ba dakigu nolakoak garen gizonok eta noraino egoten garen prest gure eskubide eta beharriak betetzeko. Beraz, neri dagokidanez behintzat, ez derizkiot gaizki erakunde horren sorkundeari, gu guztion onerako baldin bada. Eta gu kontrolatzeko gai izan behar dugu. Ez dakit nolako izango den bihar ezitiko Gorbeia. Nolanahi ere, gure ondorengoi gauguruguna heleraziz gero pozik egon ahal izango ginatekeela deritzat, azken urteetan behar-rakada nabaria sufritu duen ekosistema zaindu nahian ihardun dugula adieraziko baitluke. Askotaz hobeto, jakina, gaurregungo egoera hobegotuko balitz, eta hauxe da, hain zuzen ere, lortu behar dena.

Gorbeia Araba eta Bizkaiko mugan

dugu, ezaguna den bezala. Eta, esango nuke, mendi hau bi probintzien arteko harremanetan zerikusirik izan du. Bere magaletan diren herrietako bizilagunak anaitu egin dituela esatera ausartuko nintzateke. Araba aldetik Zuia ibarra dugu, Zigoitia eta Lezama udalekin Gorbeia-aren ugazabak. Bizkaian, berriz, Orozko ibarra eta Arratiako Areatza, Zeanuri eta Ubidea. Aitortzen ari naizena eredu bat Gorbeia-ko gailurrean ikus daitekeen gurutzeta dugu. Mende hasieran, 1901.eko Uztaila, lehenengoa jaso zenetik, lau izan dira tontorreen ipinitakoak. Oraingoa laugarrena da, burdin-zeokoa eta hamasei metroko goiera, aurreko hiruak haizeak lurreratu zituelarik. Eta Zeanuri-ko abadea zen **Juan B. Arzibari** otu bazitzaion ere gailurrean gurutzeta bat erakitzea, ez ziren Gorbeia inguruko herrietako biztanleak atzean gelditu eta apaizaren asmoa guztion laguntzaz gorpuztu zuten.

1.475 metro dituen mendi hau karezko lerroztapena dugu eta bertan leize, menzulo eta urzulo asko aurki daitezke. Irakurlearentzat ezagunak Supelegorreako eta —batez ere— Maialdegorretako izango dira. Azken honetan izaten zuten bildu leku, urtean behin, Franco garaiko abertzaleek, bertan euskal jaialdi bat eratzten baitzen udako egun batetan, haren ospea Euskal Herri osora heldu zela. Manuel Iradier Mendizale Elkar-tea da urteetan zehar jaialdiaren —abertzaleatunaren— garra pizturik irauterazi duena.

Euskal mitologiaren sarri ageri zaigu Gorbeia mendia, sorgin eta antzerkoen batzar lekutzat jotzen zelarik. Txikitandik dut entzuna "Anbotoko señorie"-k bidaiak eginen zuela uala aldean Gorbeia, erratzean eserita haizetik zihola goruetan ihardunez, gorua gerrira lotuta zeramararik. Eta mitologi hau bizirik gureganatu da, nik esango nuke, Gorbeia-

rekin arras identifikaturik diren pertsonaiei esker. Artzainei nagokie, noski, Gorbeia-ko bazterrak artzantzarako izan dira erabiliak betidanik, artzainak hango jaun eta jabeak izanez. Artzantza-kulturak garbi utzi ditu bere arrastoak mendi hartan eta hauek sakonki izan dira aztertuak, euskal kulturaren zernolako bereiztasunik eskaintzen duten ezagutzeko. Bi izen aipatuko nituzke, Gorbeia-ko artzantza ikertu dutenen artean: **On Jose Migel Barandiaran** eta **Fermin Leizaola**. Lehenengok "Vida pastoril en el País Vasco" deritzan "Eusko Folklore"-ko hamabostgarren liburuan argitaratu zituen zenbait ohar. Leizaolak, berriz, "Notas sobre el pastoreo en Gorbea" izenekoa (bi argitalpen, 1978 eta 1981) zehazkizun baliotsuak eskaini zituen. Gaurregun ere, beste garaietako kutsu bukoloikoa pixkat itzali bada ere, milaka ardi ikus daitezke sasoi egokietan Gorbeian, eta artzantzak diru-iturri izaten jarrai dezakeela dirudi.

Baina egungo gizarte honek denetarik planifikapenik behar duenez gero, Gorbeia-ri dagokionez ez dela gaizki etorriko uste dut, oraindik bizirik dirauen ingurua hil ez dakigun. Beraz, alde honetatik egin daitezkeen ahalegi-nak oro ongi etorriak izango dira.

Josemari VELEZ DE MENDIZABAL

Como lo prometido es deuda, quiero hoy reseñar una noticia acerca del monte Gorbea. Noticia que —como ya explicaba entonces— dejó sin darla hace unas semanas, luego de haberme extendido sobre una "proeza" montañera propia.

Y lo que quería comentar es que existe idea de confeccionar un plan para convertir el Gorbea en parque natural de las provincias de Alava y Vizcaya. Plan que lo llevará a cabo el Gobierno Vasco, a través de la Consejería de Política Territorial, y que tiene como objetivo a corto plazo el realizar un estudio sobre los aspectos bio-

lógico, geológico, clima, recursos gráficos, flora, núcleos de población, zonas de pastoreo... que conducirán a la creación, más adelante, de un ente encargado de velar por la riqueza natural aún guarda el Gorbea, frontera de unidas?— entre las dos provincias.

Y digo unión, ya que a uno le viene a la memoria el zorriko compuesto por el diablo Ruperto Urquijo en 1919, cuando a la cruz erigida en Gorbea (16 metros), fruto del esfuerzo comunitario veses y vicinalnos por hacer resaltar la idea inicial del cura párroco de Cortes. D. Juan B. Arzibar, quien en 1933 puso levantar una cruz de 16 metros. Debo a Josemari Sedano ("Gazte") el dato de que la actual cruz (16 metros) es la cuarta allí levantada, habiendo las tres anteriores derribadas por una tormenta.

Zona de pastoreo, base de una economía que ha desarrollado una manera de existencia. Manifestaciones de usos y costumbres propias, expresión de prácticas concretas de vida. Conjunto de métodos profundamente analizados por especialistas como D. José Miguel Barandiarán o Fermín Leizaola.

Punto obligado de referencia en la etnología de nuestro pueblo. La danza del Amboto, que según cuentan pasaba por temporadas en el Gorbea. El juego de Superlegor, desencadenante de situaciones perjudiciales para el ganado. El juego de supone enterrado en Maialdegorretta, motivo de excavaciones realizadas por pastores y campesinos.

Qué duda cabe que el planteamiento de convertir Gorbea en parque natural algo que debe congratularnos, ya que por la vía de una planificación adecuada podremos salvar un entorno natural que sufre los embates de esa terrible enfermedad denominada sociedad civilizada.